



«Furgoneta nagusia, aurrekoa, beti bera eta bakarra izateak badauzka bere arriskuak ere: matxura izatea, kasu. Horregatik bi furgonetak berdin-berdinak dira, beharra izanez gero atzekoa aurrera pasatu eta normaltasunez segitu ahal izateko», kontatu du Matuk. Aurreko furgonetak Korrika tiraka eramaten du. Atzekoak, enkarguak egiten ditu; jatekoa, gasolioa, aldian-aldian behar dena. Bada, hala ere, bi furgoneten arteko desberdintasun bat: atzekoak komuna dauka. «Batez ere, neskentzat. Mutilentzat erraza da; furgonetatik salto egin, pixka bat aurreratu, egin beharrekoak egin eta bueltan furgonetara igo. Baina konturatu gara neskentzat ez dela hain erraza, denbora gehiago behar dute eta maiz larr ibiltzen dira berriz furgonetara bueltatzeko. Hori ikusita, garbi esan genuen: atzeko furgonetan komuna jarri behar da». Eta pentsatu eta egin, hobekuntza guztiekin edizioz edizio egin duten modura.

«PRIBILEGIATUA SENTITZEN NAIZ»

«Ni pribilegiatua sentitzen naiz. Jendeak ezin du imajinatu ere egin zer sentitzen dugun Korrika furgonetan egiten dugunok; zenbat aldiz egin dugun negar, zenbatetan barre... Nik beti esaten dut ez dakidala zein den Korrika munduari saltzeko formula, baina munduan ez dago horrelakorik. Korrikaren Hemingway

behar dugu, hau zer den munduari azalduko diona. Ze hau ezin da ulertu», iritzi dio Matuk. Pentsa, finean, zer da Korrika? Mezu bat Urepeletik Bilbora eramateko (200 kilometro inguruko distantzia), hamar egun, 2.500 kilometro eta milioi bat lagun inguru lekuko bat eskuz esku eramaten. Eta, gainera, lekuko hori eramateko ordaindu egiten dute. «Gaur egun mezu bat Urepeletik Bilbora bidaltzeko segundo pare bat nahikoak dira, mezu elektroniko baten bidez, adibidez. Korrika erabat kafkianoa da zentzu horretan, ez dauka parekorik», nabarmendu du Matuk.

Euskararen aldeko ekimena da Korrika. Baina hori gainditu ote duen susmoa dauka Matuk: «Herri honen nortasunaren zeinu bat bihurtu dela iruditzen zait. Denetarik ikusi dut nik; jendea lekukoa hartu eta negarrez, hunkituta, musukatzen, batzuei erori egiten zaie emozioarekin ezin dutelako eutsi...».

Bai, gauza asko aldatu dira hasierako edizio haietatik. Furgonetan hobekuntzak izan dira urterik urte, antolakuntza fintzen joan da, baina furgonetaren barrukoak eta kanpokoak apenas aldatu diren. Herri baten euskarazko taupada markatzen duten bozgorailuak, eta, asfalttoa erritmo horretan zapaltzen duten pausoak, berdina dira lehen eta orain.

Hurrengo Korrika, 20. edizioa, martxoaren 29an hasiko da antolatzaileentzat.

Bideak

Antton Izagirre

Euskal Herria Bilduk “Euskal Bidea” izeneko proposamena egin berri du, euskal gizartean adostasunak bideratzeko asmoarekin. Orain arte ezagunak diren proposamenen artetik baditu berrikuntza esanguratsuak.

Batetik, gizartea bera jartzen du erdigunean, protagonismoa bere esku jartzen du. Esan nahi baita, gizartearen borondate kolektiboa eta erabakitze ahalmena funtsezkoak direla Euskal Estatua eraikitze prozesuan. Bestetik, hitzez hitz dio gaur egungo errealitatea kontutan hartuko dela eta urrats eta erritmo desberdinak emanez eraikiko dela.

Esan zitekeen aipaturiko bi oinarriek adostasun zabalak lortzeko beharrezko zuntzak dituztela. Malgutasun nahikorik eskaintzen dutela, pentsamolde desberdinekoen artean, elkargunerako tokia badela; baina EAJren aldetik jasotako erantzunek garbi erakutsi dute Euskal Herriaren independentziarako bidea eraikitzea ez dagoela bere lehentasunen artean, are gutxiago inorekin adostuta baldin bada.

Maila horretako ekimenaren proposatzaileei «betiko matrakatan» aritzea, edota Urkulluk bezala, mespretxuz, «iraultza» egin nahia leporatzen dietenean, argiro erakusten dute ez dutela inongo bide orririk nahi, ez bidelagunik, ez bidegilerik. Onartzen duten bide bakarria biderik eza da.

Estatu espainiarrak jartzen dituen muga estuetan eta haien borondatearen arabera eginiko proposamenetan konfiantza jartzea eskatzea bidegabekeria hutsa da. Herri borondateari eta erabakitze eskubideari uko egitea litzateke.

Bertakoen arteko adostasun nahikorik gabe urrutiko intxaurrei begira jartzeak ausia bidegabe luzatzeko katramila dirudi. Adostasun sakonik ezean, euskal gizartea keinu txikien zain dago eta “Euskal Bidea” proposamenak adostasun bila hasteko keinua izan beharko luke. •